

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Sarea erabilia:

- ✓ Hemen duzu eginkizunaren hasieran ikusitako bideoko jantzien diseinatzaileari, Ion Fizi, egindako elkarrizketa. [Irakur ezazu](#) hemen, eta komentatu ikaskideekin.
- ✓ *Argia* aldizkariak ere badu moda-kanal bat. [Klika ezazu](#), aukeratu berrietako bat, ikusi arretaz eta konta iezaiezu ikaskideei.
- ✓ Irakur ezazu modari buruzko [artikulu hau](#). Zer iruditu zaizu? Zein da zure iritzia? Komenta ezazu gelan ikaskide batzuekin.
- ✓ Hementxe duzu [Oskorri taldearen Mode](#) izeneko kantua. Entzun ezazu, eta irakur itzazu hitzak. Zer iruditu zaizu? Komenta iezaiozu ikaskide bati.
- ✓ Eusko Jaurlaritzak [arropa-denden inguruko hiztegi bat](#) argitaratu zuen, eta sarean eskuragarri dago, PDF formatuan eta dohainik.

EITBko saio batzuk:

- ✓ Paula Garaialderen bi bideo ikusi ditugu eginkizunean. Bi bideo horiek EITBko *Airean* izeneko saio baten atalak dira. Beste atalen bat ikusi nahiko zenuke? [Klika ezazu hemen](#), aukera ezazu bideoetako bat, eta ea zer iruditzen zaizun.
- ✓ EITBko nahieran aukera aprobetxatuta, hona hemen [Nago izeneko saioaren atal interesgarri bat](#) modari lotua. Saio hori Nagore Aranburuk aurkeztu zuen, eta atal bakoitzak ordubete inguru irauten zuen. Ikus ezazu, eta komentatu ikasgelan ikaskideekin.
- ✓ Balenciaga euskal diseinatzaileari buruzko dokumental interesgarria duzu ikusgai [esteka honetan](#). Ikusi eta gozatzeko. [Bere museoaren](#) inguruko informazioa izateko, sartu estekan.
- ✓ Hemen dituzu *Teknopolis* saioko bi pasarte bitxi. Batean [3D teknologia erabilia egindako jantziez](#) hitz egiten dute; bestean, [bakeroen jatorriaz](#). Komenta ezazu ikaskide batekin, eta bakoitzak horietako bat ikusi. Ondoren, elkarri komentatu eta iruditu zaizuenaz hitz egin.

Euskal diseinatzaile asko dago, eta horietako batzuek web-orrietan euskara erabiltzen dute. Hemen dituzu bi adibide. Agian, zuk besterik ezagutzen duzu; hala bada, esan ikaskideei non begiratu behar duten.

- ✓ [Maider Alzaga](#).
- ✓ [Goiuri bikiniak](#).

Ikasgelan egindako lana aprobetxatuta:

- ✓ Zer daukazu zure euskararen armairuan? Irudika ezazu armairu bat, non orain arte ikasi duzun guztia gordeta daukazun. Zer gordetzen duzu non? Pentsa ezazu, eta beste ikaskide bati azal iezaiozu.